



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhua Mindeguia Santesteban
Martxel Elizalde Elizalde.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.
Txomin Hualde Elizalde
Naiara Arretxea Gorosterrazu

2025eko abenduaren 15an, 19:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. UDALBATZAKO KIDEENDAKO ORDAINSARIAK.

Ikusirik zer xedatzen duen Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 75. artikulua udalbatzetako kideen dedikazioaz eta ordainsariez, eta jarraikiz Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduari, zehazki 13. artikuluari.

Ikusirik Kontuhartzaileak egindako txostena eta emandako azalpenak,

Aho batez erabakitzen da:

Lehenbizikoa.—Udalkideen ordainsarien araubidea aldatzea, honela:

—Dedikazio partziala duten kideak: Gutxienez %28,50ko dedikazioa izango dute, eta urtean 8.668,69 euroko ordainsari gordina jasoko dute. Gainera, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta emango zaie

—Dedikazio partzialik gabeko kideak: 100 euro, Udaleko osoko bilkura bakoitzera benetan bertaratzeagatik eta 70 euro komisioan partehartzeagatik.

—Agiri bidez frogatu behar dira karguan aritzean sortzen diren gastuen ondoriozko kalte-ordainak. Bidaia bere ibilgailuan egiteagatik, urtero onartzen diren administrazio publikoko langileen ordainsarrietan ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Bigarrena.—Adieraztea zenbateko horiei aplikatuko zaiela egoki den atxikipena, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta, indarra duen legeriaren arabera.

Hirugarrena- Akordioa 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta Osoko Bilkurak zentzu horretan beste akordio bat hartu arte egongo da indarrean.

Laugarrena- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitaratu beharko da.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.